

# Sagardoa internet bidez saltzeko plataforma

testua R. S.  
argazkia M. A.



Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak sagardoa on line saltzeko plataforma aurkeztu du; [www.sagardo.com](http://www.sagardo.com) eta [www.sidranatural.com](http://www.sidranatural.com). Bi helbide hauek dira salmentako web orrirako sarbidea; bertan kontsumitzaileak sagardotegi desberdinetako sagardoa aurkitu ahal izango du eta 72 orduko epean bere etxean izango du gustoso duen sagardoa.

Proiektu berri honekin bitarteko berri bat jarri nahi izan da kontsumitzaileen eskutan, klik bakar batekin nahi duten sagardoa lortu dezaten estatuko edozein lekutan; eta baita sagardogilearen eskutan ere, bere produktua modu erraz batean interesa duten kontsumitzaileei bidaltzeko modua izango baitu. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak bultzatzen duen proiektu hau Eusko Herriz kanpoko kontsumitzaileengan pentsatuta egin da alde batetik, bestela bilatzea kostako litzaie-

ken sagardoa etxean izateko aukera izango baitu jendeak, baina bertako kontsumitzaileentzat ere egokia da, sagardo desberdinak probatzeko beren ordenadoretik eskaera egin beste lanik ez baitute izango. Guzti honekin sagardoaren salmenta eta kontsumoa bultzatu nahi da, sektoreak garbi baitu produktuak dituen ezaugarriak kontuan izanda hazteko aukera handiak dituela: produktu naturala da, freskagarria, kalitate handikoa eta alkohol graduazio txikikoa. Salmentarako kanal berriak irekitzea ezinbestekoa da kontsumitzaile potentzialak produktuarekiko interesa azaldu eta modu erraz batean lortzeko aukera izan dezan, eta horretarako ezinbestekoa da teknologia berriek eskaintzen duten aukera.

Web orriak aukera ematen digu sagardotegi bakarreko sagardoa eskatzeko edo kaxa berean sagardo desberdinak sartu ahal izateko eta horrela, eskaera bakarrean produktu desberdinak probatzeko

aukera izango du kontsumitzaileak. Hasi batean 10 sagardotegi hasi dira sagardo salmentarako proiektu honetan, guztira 20 sagardotegi gora. Datozen egunotan joango dira Elkartearen gainerako sagardotegiak sartzen, Elkartearen osatzen duten 50 sagardotegiak osatu arte eta etorkizun batean beste sagardo batzuk sartzea ere ez du deskartatzen Elkarteak. Web orria, sagardo salmentarako plataforma izateaz gain, informazio gune ere bada: Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen 50 sagardotegien inguruko informazioa biltzen du, sagardo munduko informazioa, afiliatuentzako boletinak eta abar. Merkatu enpresak diseinatu eta gestionatu du proiektua, horrelako egitasmoetan esperientzia handia baitu eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza izan du, bai SPRIK ematen dituen diru laguntzen bidez eta baita Nekazaritza Sailak ematen dituen laguntzen bidez ere eta bestealde.